

URA IZATEKO ESKUBIDE UNIBERTSALA

Ura bizitzaren oinarria da. Edateko ura eta saneamendua ezinbestekoak dira osasunerako, bizi ahal izateko, duintasunerako. Zoritxarrez, 900 milioi lagunek (ia hamarretik bik) ez dute edateko ura emango dien iturri segururik, 2.500 milioi pertsonak saneamendu zerbitzurik gabe daude (hamar lagunetik lauk ez dute komunik, ezta ukuilurik ere), nola arraio da posible gaur, orain, XXI. mende honetan? Uraren hornidurari eta saneamendu nahiz higiene ezari loturiko gaixotasunak direla medio, urtero milioika lagun hiltzen dira, umeak gehien bat (egunero 4.000 haur inguru). Egungo ura eta saneamendu mailan dagoen krisialdi larriaren oinarrian daude pobrezia, desorekak zein desberdintasunak, botere-harremanen arteko aldeak, eta elite batzuen dena merkaturatzeko eta pribatizatzeko joera eta grina. Horri, gizarte eta ingurumen erronkak gehitu behar zaizkio, hala nola, gero eta azkarrago gertatzen ari den urbanizazioa eta harekin datorren lurraren artifizializazioa, gorantz doan ur sistemen kutsadura, edo aldaketa klimatikoa, dakarren ur-baliabideen urritzearekin.

2010eko uztailaren 28an, Nazioen Batasunaren Asanblada Orokorrak, [64/292 Ebazpenaren](#) bitartez, edateko ur garbia eta saneamendua izatea bizitzeko ezinbestekoa zela eta, ondorioz, oinarrizko giza-eskubidea zela espresuki aitortu zuen. Aitzitik, zein urrun gauden hori betetzetik. Era berean, Milurtekorako ezarritako Helburuetara ez gara inolaz ere iritsiko. Baina okerrera da etorkizunean urarekin zerikusirik duten erronkak nabarmen areagotuko direla. Nazio Batuen Erakundeak mundu mailako ur-baliabideen garapenari buruz kaleratu duen txostenaren arabera **2050ean, gutxienez lau pertsonatik bat ur falta larria eta jarraitua duen herrialde batean biziko da.**

Egoera larria bezain tamalgarri horren aurrean, beheran sinatzen dugun erakundeok aitortzen dugu:

1. Bizitza duinerako ura izatea ezinbesteko giza-eskubidea dela eta ukalezina.
2. Gizaki orori oinarrizko giza-eskubide hori bermatu behar zaiola.
3. Ura oinarrizko ondasuna dela, denona dela eta, ondorioz, ezin duela jaberik izan. Uraren kudeaketa publikoa izan behar duela.
4. Ur-ekosistemak onura ugari eta anitzak sortzen dituztela, esaterako uholdeen eragina leundu edota uren arazketa naturala.

Eta adierazten dugu:

- **Bai** edateko ur garbia eta saneamendua izateko eskubideari, zeina nazioarteko politikagintzan erabateko lehentasuna izango den.

- Ura, bere erabilera edo bere kudeaketaren pribatizazioari **EZ**. Ura ez dago salgai eta eskubideekin ez da jolasten.
- Gerrarako tresna gisa edo txantajea egiteko uraren erabilerari **EZ**.
- **BAI** ur-ekosistemen kontserbazioari, biodibertsitatearengatik baina batez ere geure biziraupenarengatik.
- **BAI** klima aldaketaren aurkako borrokari.

Horregatik guztiagatik, datorren **maiatzaren 31n, larunbatekin, arratsaldeko 17:00etan Martutenetik irtengo den eta Zuloaga plazaraino Urumearen ertzetik joango den ibilaldi herritarraren deialdiarekin bat egiten dugu.**